

## Politika berria

### 27.1- Erantzun galderei:

- A. Zergatik haserretu da Eskisabel kapitaina?
- B. Zein izan dira hauteskudeen emaitzak?
- C. Garbi al dago nork agindu behar duen hauteskudeen ondoren?
- D. Zein da Kevinen iritzia politikaren inguruan?



27.2- Johnsonek “Bigotitos” esaten dio Eskisabel kapitainari. Goitzenen fenomeno, mundu zabalean bezala, gurean ere oso errotuta dago. Batzuen oinarrian jaiotetxea dago, edo ogibidea, edo ezaugarri fisikoren bat... Eta askotan ironia punturen bat ere bai. Jakingo al zenuke goitzen hauetako bakoitzaren atzean nor dagoen esaten?

<i>Apretone</i>	Eroa, gorabeherak dituen
<i>Kanillas</i>	Askotan “Bai, motel” esaten duena.
<i>Patxi Kontra</i>	Herrena.
<i>Txintxarri</i>	Espartinak egiten dituen.
<i>Tximista</i>	Sekula ados ez dagoena.
<i>Kartolak</i>	Herriko dorrean bizi dena.
<i>Bamotel</i>	Iturgina.
<i>Torreku</i>	Belarri handiak dituen.



27. atala: Bakarka

## Transkripzioa (02:21)

- K- Eskisabel kapitaina... zerbait gertatzen al da?  
 E- Ez, ez da ezer gertatzen.  
 K- Orduan zergatik hots egiten diguzu?  
 E- A, bada, ez dakit, akaso... operazio guzti honen arduraduna naizelako!!!  
 K- A, bale delegatzen ez dakien beste jefe horietako bat zara orduan.  
 K- Tasio!!! Bigotitosek zurekin hitz egin nahi duela.  
 E- Ez nazazu deitu bigotitos !!!  
 T- Baniak!  
 E- Tira, bada, orduan, datu eta parametro guztiak zuzen daudela baieztatuta, konexioa etetera noa.  
 T- Amaitu aurretik, gauza bat galdetu nahiko nizuke.  
 E- Bai, bota.  
 T- Bueno, justu hona etorri aurretik hauteskundeak egin ziren eta jakin nahiko nuke...  
 E- Nahi duzu zeintzuk izan ziren emaitzak.  
 T- Bai.  
 E- Bueno, bada, betikoa defendatzen duten betikoeak ia betiko emaitza atera eta aginduko dutela dirudi.  
 T- Betikoeak?  
 E- Zeureek, Tasio, zeureek  
 T- A! bale.  
 E- Eta gero, ezker abertzalea, ez atzera eta ez aurrera.  
 T- Eta moreak?  
 E- Bada, horiek ere, ez aurrera ez atzera...  
 T- Eta independentziaren aurkako alderdiak?  
 E- Zeure alderdia ere hor kokatuko genuke?  
 T- Batzuetan oso maltzurra zara, Eskisabel.  
 E- Ez zinen enteratuko baina sozialistek, beren artean, muturrekoka amaitu dute.  
 T- Jo... Ez nukeen, bada, esango.  
 E- Eta Espainiara itzultzearen aldeko eskuina, azkenekoak geratuta ere, irabazi izan balute bezala ospatzen ari dira.  
 T- Joder, zer *pasada!* Eta hitzarmenak? Nork agindu behar du?  
 E- Amaitu da tertulia politikoa, Tasio. Lanpetuta nago.  
 K- Politikarekin duzun obsesio hori ez da normala, Tasio.  
 T- Politika garrantzitsua duk.  
 K- Zaharrunoen kontuak, Tasio... Zinema, behintzat, entretenigarriagoa da.  
 T- Entreenigarriagoa? Baina entzun al duk Eskisabelek esan duena?  
 K- Entzun bai, baina kasu egin...  
 T- Sekulakoa duk, Johnson. Gure herriko politika baino gauza aldagarri eta apasionanteagorik ez zegoek.  
 K- Bai, bai... seguru-seguru!  
 T- Joder, azken 50 urteotan, baina eske, nola aldatu diren gauzak!

## Erantzunak

- 27.1- A.- Kevinek *bigotitos* deitu diolako.  
 B.- Betikoeak irabazi dute. Ezker abertzalea ez aurrera eta ez atzera gelditu da. Moreak ere berdin. Sozialistek muturrekoka amaitu dute eta Espainiara itzultzeko eskuina azkena geratu da.  
 C.- Ez. Eskisabelek ez du adierazi hitzarmenak nola egingo diren eta nork agindu behar duen.  
 D.- Ez du interesik. Zaharren kontua dela dio. Zinema entretenigarriagoa iruditzen zaio.
- 27.2.-
- |              |                                    |
|--------------|------------------------------------|
| Apretone     | Espartinak egiten dituena.         |
| Kanillas     | Iturgina.                          |
| Patxi Kontra | Sekula ados ez dagoena.            |
| Txintxarri   | Eroa, gorabeherak dituena          |
| Tximista     | Herrena.                           |
| Kartolak     | Belarri handiak dituena.           |
| Bamotel      | Askotan “Bai, motel” esaten duena. |
| Torreku      | Herrik dorrean bizi dena.          |